

## IDEIA

Hainbat ideia esan ondoren, gimnasio ekologikoa izan da gehien gustatu zaiguna eta egokiena iruditu zaiguna, beraz, horrekin geratu gara.



Buruan dugun gimnasioa ez da beste gimnasioak bezalakoa, gure gimnasioa ingurumenaz arduratzen baita.

Gimnasioa izateaz gain, gure enpresak berrerabilitako kirol-produktuak saltzen dituen denda bat ere izango du.

Gimnasioko korrika makinek gimnasioan erabiliko den energia sortuko dute. Energia hori batez ere gimnasioan eta dendan argia egoteko erabiliko da.

Gainera, kirolariek korrika egiten duten 50 km-ko bakoitzean deskontuak emango zaizkie gimnasioko dendan gasta dezaten.

